


SAN PRUDENTZIO JAIK 2025



San Prudentzio
Jaiaak



Abadiño
Elizateko Udala

SAN PRUDENTZIO JAI EGITARAUA

APIRILAK 27

DONIEN ATXA

17:00 Kuadrilla guztiak batuko dira Trañako zubian Donien Atxa ekartzeko.

19:00 Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, Sama Siku fanfarrea, Iluntze taldearen dantza saioa, eta urteko herritar ospetsua saritzeko ekitaldia.

APIRILAK 28

SAN PRUDENTZIO

17:00 Kattalinen bidaia (Panpotx Kultur Elkartea) familia ikuskizuna Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean. Bertarutzen direnei krispetak banatuko zaizkie.

APIRILAK 30

EGUAZTENA

18:30 San Prudentzio esku pilota txapelketa. Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.

19:30 Txupinazoa txosnagunean, Txanbolin taldearen eskutik. Ondoren, parrillada.

20:30 Bingo solidarioa Traña plazan.

22:00 Dj Gartzzi Traña plazan.

23:30 Bingo solidarioa Traña plazan. Ondoren, Dj Gartzzi. Bingo solidarioan jasotako dirua Angelman Sindromearen elkartearentzat izango da.



MAIATZAK 1

EGUENA

Goizean, Geu Be taldeak Eusko Labeleko txahal bat erreko du eskolako aterpean.

10:00 Artisautza azoka eskolako aterpean.

11:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

12:00 Herri kirolak Traña plazan. Euria bada, frontoian.

17:00 Tute txapelketa Taberna Zarran.

17:00 San Prudentzio esku pilota txapelketa. Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.

18:00 Erromeria Trañabarren etorbidean. Euria bada, Traña plazan: Kitzi

MAIATZAK 2

BARIKUA

17:00 San Prudentzio 2025 xake txapelketa Pino plazan. Abadiñoako Xake Taldeak antolatuta.

17:00 San Prudentzio esku pilota txapelketa. Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.

17:00 Partxis txapelketa adinekoen elkartean. Udaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta.

22:00 Kontzertua Traña plazan: Korroxion Lionels Reincidentes

MAIATZAK 3

MOZORRO EGUNA (GASTRONOMIA)

14:30 Herri bazkaria frontoian. Ondoren, kuadrillen arteko jolasak, Txosna Batzordeak antolatuta. Txartelak salgai apirilaren 29ra arte, Errota Kultur Etxean. Txartela: 10 .

Traña-Matiena
Donien Atxa
Herriguneko biribilgunean,
19:00etan

**SERRATU S.L.**
Ondo para San Prudentzioetan!
Galdaragintza eta itxierak
Enpresetan mantentze-lanak
Astola, 48 ABADIÑO - Tel.: 946 201 837
serratu@serratu.com - www.serratu.com



**electricidad ELGOIN S.A.**
MUNTAIA ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
SARE INFORMATIKOAK
Zubibitarte, 6
48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)
Tel.: 946 817 961 - elgoin@elgoin.com

DIBA
KOOPERATIBA
Durangaldeko Baserritarren Elkartea
Muruetan, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

petite
LIBURUDENDA
PRENTSA • LIBURUAK • ALDIZKARIAK

Zubibitarte, 11 - Tel.: 946 810 438 - Matiena (ABADIÑO)

**ZAINDUZ**
Fisioterapia • Osteopatia
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.
Trañabarren 13, 4. blokea beheko eskuma, MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374
@zainduz_fisioterapiaosteopatia

19:00 Mozorro kalejira
Trañabarren kalean, **Goxo fanfarreak** alaituta.

22:15 Deabruak gara kale ikuskizun piroteknikoa (Lekittoko Deabruak), Traña plazan. Parte hartzeko, arropa egokia eramatea gomendatzen da (arropa zaharrak, txanoa, arropa bakeroa, praka luzeak, zapia,...).

23:00 Erromeria Traña plazan: **Berritzu**

MAIATZAK 4

DOMEKA

11:00-13:30 Umeentzako jolasak Traña plazan. Euria bada, frontoian.

13:30 Perretxiko-pintxo dastatzea Pinoko plazan, Geredixa Mikologi Elkarteak antolatuta.

16:00-19:30 Umeentzako jolasak Traña plazan. Euria bada, frontoian.

17:00 Mus txapelketa Taberna Zarran.

18:00 Moda desfilea De Norte a Sur taldearen eskutik, San Prudentzio nagusien elkartearen



Traña-Matiena
Mozorro Eguna
Mozorro kalejira kaleetan zehar 19:00etan

Iaguntzagaz, Errota Kultur Etxean. Gonbiteak eskuragarri Errota Kultur Etxean, apirilaren 28tik aurrera (gehienez, 4 sarrera pertsonako).

MAIATZAK 9

BARIKUA

16:45 Txiki merienda, merkatu plazan. Txartelak salgai Errota

Kultur Etxean apirilaren 28tik aurrera; gehienez, 5 txartel pertsonako. Txartela: 1 .

17:00 Txintxon txapelketa adinekoen elkartean. Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta.

17:15 Disko-dantza merkatu plazan.

18:30 San Prudentzio esku pilota txapelketako finalak. Atxiki Pilota Klubak antolatuta.

20:00 Bertso saioa Errota Kultur Etxean. Bertsolariak: Txaber Altube, Unai Iturriaga, Alaia Martin eta Ane Labaka. Gai jartzailea: Igor Galarza. Gonbiteak eskuragarri Errota Kultur Etxean apirilaren 28tik aurrera (gehienez, 4 sarrera pertsonako).

22:00 80ko hamarkadako gaua (DJ Iver) Traña plazan.

MAIATZAK 10

GAZTE EGUNA

11:00 Trikitilariak merkatu plazan.

11:30 Paella txapelketarako izen ematea, merkatu plazan.

12:30 Iluntze dantza taldearen kalejira eta ekitaldia Traña plazan.

14:30 Txupinazoa eta Gazte Eguneko bazkaria Traña plazan. Ondoren, Gazte Egune

16:00 Ugasixo txapelketa merkatu plazan.

17:30 Tortilla txapelketarako izen ematea merkatu plazan.

18:30 Kalejira Sakatu taldeagaz, Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

22:00 Kontzertua Traña plazan: **Katu Tatta & Denso Xaukena Xauk**

23:00 Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Orkestra Jaguar**

MAIATZAK 11

DOMEKA

10:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

12:45 Jaizale txistulari elkartearen kontzertua elizan.

14:00 Nagusien bazkaria frontoian, Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta. Ondoren, Dantza Alai taldearen ekitaldia.

20:00 Donien Atxa botatzea.

Ondo pasa jaietan!

SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXeko ALTZARIAK

Murua auzoa z/g
Eroski Merkatal zentroa
ABADIÑO

www.homedesign.schmidt

VONCOUVER

Bar - Cafeteria

Trañabarren Etorbidea, 9
MATIENA
Tel. 94 681 70 39

Taberna Larra

HABITACIONES

Pensión

Trañabarren, 1
MATIENA - Abadiño
Tel.: 94 681 47 14
Móv.: 679 416 564

PROIEKTUAK

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA

LIZENTZIAK

OBREN ZUZENDARITZA

ETXEBIZITZEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK

BARNE DISEINUA

TASAZIOAK

ARKITEKTO TEKNIKOAK
Tel. 946 855 654
608 518 093

Zubibitarte 2 bajo, 48220 Abadiño

TONO

ALBAÑILERÍA

Igeltserotza orokorra
Etxebizitzaren zaharberritzeak
Merkataritza-lokalak
Baserriak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

686 420 383
946 202 565



Kakorratz taldeko kideak Traña-Matienan.

Artilezko banderatxoak jaietako apaingarri

Dozena bat emakumek osatzen dute Traña-Matienako Kakorratz taldea. Azken hileotan proiektu bateratu bat izan dute, San Prudentzio jaietan herriko kaleak atontzeko banderatxoak kakorratzagaz egitea. Guztira, 170 banderatxo egin dituzte

M.Z. ABADIÑO

Kakorratza eta artilea esku artean hartuta, dozena bat emakumek hitzordua izaten dute eguaztenero Traña-Matienako Errota Kultur Etxean. Mahai bueltan, berriketaldi ederrean, pare bat ordutik artilea lantzen ibiltzen dira. Emakume bakoitzak bere proiektua garatzea da talde txoaren helburua, elkarri lagunduta eta konpainia eginda.

Baina, azken hileotan, taldea osatzen duten emakume guztiek proiektu bakar bat izan dute esku artean: San Prudentzio jaietan herria atontzeko banderatxoak kakorratzagaz egitea. "Errioxako herri batean oportet nengoela, artilez egindako jaietako banderatxoak ikusi nituen. Ideia polita iruditu zitzaidan eta taldekideei geuk ere horrelako zeozer egitea proposatu nien. Ondoren, udalagaz hartu-emanen jarri ginen. Ondo iruditu zitzairen, eta artilea euren ordainduko zigutela esan zigten", azaldu du taldeko kideetarik batek. Harrezkero, kakorratz taldeko kideak proiektu bateratu batean lanean ibili dira eguaztenero-eguaztenero.

Emaizta esku artean dute da goeneko. 170 banderatxo egin dituzte. "Oso pozik gaude emaitzagaz, eta desiratzen gaude herriko kaleetan ikusteko", esan dute.

Bestalde, udalak banderatxoak kale nagusian eta eskolan ipiniko dituela azaldu dute. "Guri ondo iruditzen zaigu, baina zaharren egoitzako tabernan ere

"ZAHARREN EGOITZAKO TABERNAN BATZUK IPINTZEAK ILUSIO BEREZIA EGINGO LIGUKE"

batzuk ipintzea gustatuko litzai guke. Ilusioa egingo liguke", gaineratu dute.

Behin proiektu bateratu hau amaituta, buruan besteren bat ere badutela esan dute. "Herriren batean gabonetako zuhaitza artileagaz jantzi dutela ikusi dugu, eta horrelako zeozer egin dezakegula uste dugu", adierazi dute.



MUEBLES DE COCINA Y HOGAR

ARRIANDI

SUKALDE ETA ETXEO ALTZARIAK

santosarriandi.com

Urbite industrialdea, 6 - 3.lokala
48220 Abadiño
Tel.: 946 202 656
Mug.: 657 793 872
abadiano@arriandi.com



Electricidad ANBOTO

AUTOMATISMOAK-HARILKATZEAK
ELEKTRIZITATE-INSTALAZIO
INDUSTRIALAK
AUTOMOZIOAKO ETA
INDUSTRIA-
ELEKTRONIKARAKO KABLEATZEAK

Tel.: 946 812 433
Faxa: 946 810 996
www.electricidadanboto.com

Trafapadura industriagunea,
C pabiloia, 5. lokala
MATIENA - ABADIÑO (Bizkaia)



ELECTRICIDAD
EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Arzubio, 10 Apdo.115
48220 MATIENA - ABADIÑO
eguzki@eleceeguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 F: 946 818 658



Neumáticos ETXEBARRIA

OLIO ALDAKETA - PNEUMATIKOAK marka guztiak - BALAZTA-PASTILLAK - MOTELGAILUAK

San Prudentzio jai zoriontsuak!

Urbite, 6
48220 Matiena
(Hiper Eroski aurrean)

www.neumaticosetxebarría.com Tel.: 946 232 620 @neumaticosetxebarría

Administración de loterías

N.º 1 HIRU

Ondo pasa jaietan!

San Prudentzio, 2 behe MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 280 457 - loteriahiru@hotmail.com



FERRETERIA MIKELDI
SUMINISTRO INDUSTRIAL Y CONSTRUCCIÓN

Urbite Polígono Industrial, 6
Traña-Matiena
946 23 26 66
www.ferreteriamikeldi.com

"Jendea gogotsu etortzen da Aterpeko kontzertura"

Euren kontzertuak ez dira jai batzordearen egitarauan agertzen, ezta txosnagunekoan ere. Alabaina, leku propioa egitea lortu dute Traña-Matienako jaietan. Aurten ere, Aterpe txokoko kideek kontzertuak antolatu dituzte jaietz eta lagunarteaz gozatzeko

Ekaitz Herrera MUSIKA

Jaietako bigarren zapatuko arratsaldean Aterpe taberna zenaren aurrealdera doan honako hau ikusiko du: eszenatikirik behar ez duten rock musikariak kalean, eta lagun arteko parranda giro alproja. Aterpe txokoko kideak orain urte batzuk hasi ziren, haien kabuz, kontzertuak antolatzen, eta, urteak joan urteak etorri, sanprudentzioetan hutsik egiten ez duen hitzordua bihurtu da eurena. "Beti gura izan ditugu gauzak geure erara antolatu, loturarik barik. Eta auzoko jaietako hau ere horrela hasi zen; behin, rock talde bat kontratatu genuen ezkontza ba-

terako (The Artichokes), eta taldea gustatu zitzaigula ikusita, Traña-Matienako jaietan gure txokoaren aurrean kontzertua ematera gonbidatu genituen musikariak", azaldu du Aterpeko Oscar Lacambrak. Lehenengo aldi hartatik hona bederatzi urte pasatu dira eta ohitura hori urtero-urtero berritu dute, musika taldeak aldatuta. "Hori bai, beti izan ditugu rock doinuak lagun, horixe da eta gutxi gora-behera eskaintzen duguna, rock bertsioak egiten dituztenen kontzertuak", azaldu du Txitxo Villarrek: "La Polla Records, Barricada, Iron Maiden eta halako taldeen kantuak jotzen dituzte-

nak". Aurten, The Artichokes talde gasteiztarra eta Baske Street Boys talde abadiñarra izango dira Aterpe txokoaren aurrealdean. "Lagun arteko giroa sortzen da beti, hurbila, sanoa. Aurten go kontzertua ere, aurrekoen antzera, itzela izango da. Jendea oso gogotsu etortzen da hona", adierazi du Villarrek.

Paella jan osterako plana

The Artichokes, Baske Street Boys eta kontzertura bertaratzen direnen parranda giroa maiztaren 10ean hasiko da egosten Aterpe txokoaren aurreko patioan, 17:30 aldera; paellen eguneko arratsaldean, hain zuzen



Aterpe txokoko zortzi elkartekideak. ATERPE TXOKOA

ere. "Hona datorrenak primera-ko arratsalde-pasa egingo du. Gainera, zuzeneko musikak beti sortzen du ikusmina. Jendea

entzutera eta ondo pasatzera dator. Hori ere nabarmentzeko modukoa da", amaitu du Lacambrak.


Tel.: 946 817 464
ZUHAITZ
ZURA ZURE NEURRIA
clientesabadino@maderazuhaitz.es
www.maderazuhaitz.es
Hiper-Eroski aurrean
Uribitarte poligonoa F3-4
Traña-Matiena 48220 Abadiño


GOXOA TABERNA
Maite Elexpe
Trañabarren, 9
MATIENA - ABADIÑO
Tel. 674 995 087


Berria!
ELEKTRODOMESTIKOAK
AREIZAGA
Tel. eta Fax 946 814 081
Trañapadura, z/g Behea . 48220 Matiena Abadiño
areizagaelectro@hotmail.com


FARMACIA
MATIENA
Trañabarren Hiribidea, 15
Traña-Matiena
946 217 009 / 639 479 557
@farmaciamatiena
www.farmaciamatiena.com


MAILA GUZTIAK, TALDE TXIKIAK
ORDUTEGI MALGUTASUNA
Zubitarre, 11 behe, ekerra. Matiena, Abadiño
www.redhilllanguage.com
redhill.language.school@gmail.com


EKOGARDEN
FLORES - PLENOS - HERBIA
GISASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
LORAK - PENTSUAK - BARATZA
TRAÑA - MATIENA - ABADIÑO - BIZKAIA
TEL: 94-681-66-87
C/ ZUBIBITARTE 14
E-mail: gisasola.p@gmail.com


MATIENA ESTANKOA
Trañaetxoste, 2
MATIENA - ABADIÑO
Tel.: 946 814 033


XARMA
Fisioterapia eta Osteopatia
Martine Usabel Lizundia
673 589 190
@xarmafisioterapia
fisioterapiaxarma@gmail.com
Trañabarren 27, Traña-Matiena, Abadiño


Talleres Serafín
S.Coop
Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807



Mikel Azkarraga eta Sugar Perez, Traña-Matienan.

"Kalejirak jaiak bizitzeko beste modu bat dira"

MIRIAM URIA, JOSU ARKARAZO, XABIER ITURRIAGAETXEBARRIA
ETA SUGAR PEREZ TXISTULARIAK

Urteetako lanaren aitortza legez, txosnaguneko txupina jaurtiko dute apirilaren 30ean

Aritz Maldonado ABADIÑO

Hamarkadetan zehar, kalejiretan kilometro andana egindakoak dira Txanbolin txistulari taldeko kide diren Josu Arkarazo, Miriam Uria, Xabier Iturriagaetxebarria eta Sugar Perez. Pozik hartu dute Txosna Batzordeak txupinazoa botatzeko egin dien gonbita, eta entseguekin ere hasi dira San Prudentzioetan hasi eta San Trokazetan amaituko den "maratoi-rako". Estatutuen arabera taldea 1993an sortu bazen ere, herriko txistulariek ia mende erdi darabate San Prudentzioetan kalejirak egiten. "Jai hauek egiten hasi zirenean hasi ginen kalejirari irtetzen, nik soldadutza egin

ostean edo, 1977aren bueltan. Urteko lehenengo jaiak ziren hemen inguruan eta arrakasta itzela zuten. Bost-sei kalejira-edo egingo genituen", azaldu du Arkarazo beteranoak. "Zezenik egon barik ere, zezenak makina bat bider harrapatutakoak gara gu kalejirara joaterakoan", diote barre artean Uriak eta Iturriagaetxebarriak. Perezek pandemia betean egin zuen lehenengo kalejira Txanbolin taldeagaz.

Zu, Sugar, geroago hasi zara txistua jotzen.

Sugar Perez: Orain zazpi bat urte hasi nintzen ikasten, Josugaz. Lehenengo kalejira Korrika batean egin nuen, baina, Trañan,

pandemian egin ziren 'ez jai'-etan jo nuen lehenengoz. Arraroa izan zen, baina oroitzapen polita dut. **Miriam Uria:** Aurpegian pantailak ipinita jo genuen urte horretan, eta Ertzaintzarengana joan behar izan genuen aurretik, baimena eskatzera.

Xabier Iturriagaetxebarria: Jende dezente eskertu zigun hori, egia esanda.

Zelan hartu duzue txupina jaurtitzeko gonbidapena?

M. U.: Eskertzekoa da gutaz gogoratzea. Mikel Azkarraga kideak idatzi du pregoia, eta, eskerrak emateaz gainera, txistu mundua gainbehera doala ere gogoratuko dugu, eta gazteei taldera ba-



Laubideta kalea, 7
Matiena/Abadiño
Tel.: 611 720 182
@bar_sanblas

EBANISTERIA
AGUSTIN

ETXEKO ALTZARIAK
SUKALDEA ETA BAINUGELA
ERREFORMAK
PROIEKTUAK

Barrio Murueta, 1
Matiena, Abadiño

946 81 26 85
www.ebanisteriaagustin.com



**PANADERIA
MATIENA**

Juan Antonio Unzueta, 2
48220 Matiena - Abadiño
657 592 658 - 94 466 67 73



ARRAIN FRESKOAK,
IZOZTUAK ETA ITSASKIAK

IURRETA
946 81 11 72 / 605 774 708
MATIENA
946 81 87 28 / 663 873 513
Etzerako zerbitzua
622 411 643



Trañaetxoste, 1 behe
48200 Matiena (Abadiño)
946 814 670

ESPEZIALITATEAK
Txorizoa - Odolostea
Bertoko txahala



MAPFRE

BEGOÑA NAVARRO
CAPANAGA

San Prudentzio, 2 Matiena
Tel.: 94 681 88 89

navarrrb@mapfre.com
www.mapfre.com/oficinas/4837



ERAIKUNTZA ETA HERRI-LANAK

- Asfaltatzeak
- Urbanizatzeak
- Hondeaketak
- Industria-pabiloiak eraikitzea

Astola auzoa, 68
48220 Abadiño
Tel.: 94 681 40 36
clasuen@lasuen.com
www.construccioneslasuen.com





Miriam Uria, Josu Arkarazo, Xabier Iturriagaetxebarria eta Sugar Perez.



Txanbolineko kideak, artxiboko irudi batean.

tzeko gonbita egingo diegu. Orain kide berri bi ditugu, Aiur eta Alluitz gaztetxoak, biak danborrariak. Denon artean taldeak aurrera egingo du. *Kandelerid-xokantak* dioen moduan, akerrak ere joko du txistua, eta astoak danbolina, idiak eta herriko enparauek dantza egin dezaten. Pregoian hori eta gauza gehiago esango dugu.

Josu Arkarazo: Txistulari gazteak badaude egon, maila ona dutenak gainera, baina gero plazara irteten ez badira...

S. P.: Orokorrean, ez dago ez txistulari ez atabalarik asko, ez kontserbatoriokoak ez plazakoak, eta horrek ez du kontua errazten.

Zelan joango dira aurtengo jaiak?

M. U.: Aurten kalejira bi ditugu: maiatzaren 1ean eta jaietako

azken domekan. Jai Zale txistulari taldearen kontzertua egongo dela aprobetxatuta egingo dugu bigarren kalejira hori.

S. P.: Mikelegaz batera San Prudentzio bezperan ere joko dut nik, Donien Atxa jaso aurretik, eta Iluntzeren dantza saioan.

Aldatu egin dira kalejirak sasoi batetik hona?

M. U.: Lehen, kalejira gehiago

egiten genuen, eta askoz ere lo gutxiago eginda gainera. Baina umore onez beti.

X. I.: Kalejiran hamarretakoa egiten dugu; txahala erretzen dutenengana joan, Geu Bekoak bisitatu... Kalejirak jaiak bizi-tzeko beste modu bat dira.

J. A.: Gaur egun, goizetan ez da batzen sasoi bateko jendetza. Makina bat banango dantzatu

dute *Amatxin* gugaz (barrez).

Auzo desberdinetakoak izanda, baduzue pikerik?

S. P.: Nik daramat denborarik gutxien taldean, apenas dakit txistua jotzen, eta, hala ere, behin eta berriro gonbidatzen naute jotzera. Ez, ez dago pikerik.

M. U.: Apurtxo bat, bai, baina gatza eta piperra behar ditugu-lako taldean.

La costura de Mariage

ARROPA
KONPONKETAK
BORDATUAK

Tel: 628 59 85 67
San Andres, 2
Matiena

AMAIA MUNITXA
FISIOTERAPIA

☎ 688 61 32 77
✉ amaia.munitxa@gmail.com

Egurraz berotu

944 074 653
www.enerbarri.com
Muruetan, 3. Abadiño

PINTURA DENDA
TABIRA
COLOR

📍 Urbitarte Ind., 2, Abadiño
Eroskiren aurrealdean gaude

☎ 94 621 79 11

Nuevo Pino
659 201 667

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabillioiek ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

Garage Miguel

Arzubia, 10 A - Pabellón 1
T. 94 681 91 61 - F. 94 621 82 64